Bestalde, euskaraz gauzak egitearen beharra azpimarratu du Santxok: “Ipuin kontalariak, antzerkiak... euskaraz jasotzera ohituta gaude, baina guk euskaraz aritzeko jarduerak behar ditugu”.

Egoera horiek estres linguistikoa eragiten dutela salatu du Estebanek: “Gure seme-alabek euskaraz egiten dute lehenengo hitza, baina zaila dute beren inguruan hori mantentzea, eta 9 urterekin zama hori izatea zaila da”.



Euskaraz bizitzeko espazioen faltan, arnasmune bat eratu asmoz ekin diote egitasmoari hainbat guraso euskaldunek. Hilabeteetan behin egiten dituzte irteerak, natura eta euskara uztartuz. Kontaktua: 649 627 150.

VIVIR EN EUSKERA

Itzuli Mihitzuli es una iniciativa impulsada por familias euskaldunes y consiste en hacer salidas y excursiones montaÑeras. El objetivo es reunir a estas familias que viven en su día a día en euskera para que tengan más oportunidades de disfrutar también en su tiempo de ocio en esta lengua con normalidad.

Hitzetatik ekintzetara

Egoera honi irtenbide bat emate aldera, bilera bat egitea erabaki zuten. “Beti gara kexu, eta beharrezkoa da hori, baina sortu, eraiki eta eskaintzea ere ezinbestekoa da; ezin gara negarretik bizi”, gaineratu du Estebanek. Esan eta egin: Itzuli Mihitzuli sortu zuten. “Hilabeteetan behin ateralditxoak egiten ditugu, irailetik ekainera bitartean”, esan du Santxok. Iruñerrikoak dira familia gehientsuak, eta zonaldeak gertu dauden lekuetara joan ohi dira. “Saiatzen gara ez oso urrunera joaten, eta ibilaldiak ere arinak

dira, haurrendako oso aproposak”, esan du Santxok.

Planak ere askotarikoak direla azaldu du Estebanek: “Ur-jauziak, pistak, zintzurak... helburua da besterik gabe paseo bat ematea giro euskaldun batean”. Giroa apartekoa dela gaineratu du Santxok: “Guraso batek bertsoak botatzen ditu bat-batean, beste batek ipuin bat kontatu...”. Irulegira, Larunbera edota Peruharrira ere egin dituzte irteerak. Batzen diren familiak orotarikoak dira, gurasoen esanetan: “Hirutik hamabost urtera arteko haurrak etortzen dira”. Halaber, azaldu dute geroz eta familia gehiago joaten direla: “Zazpi edo zortzi familia finkoak gara, eta badira noizean behin etortzen direnak; ekintza batzuetan 20 familia egotera iritsi gara”. Santxorendako terapia moduko bat ere bada Itzuli Mihitzuli: “Umeak ahaldunduz ditugu, eta elkarri babesa emateko sare bat ere bada”. Izan ere, hala, umeek ikusten dute ez direla euskara hutsean hitz egiten duten bakarrak, ez direla “arraroak”, Santxok esan duenez. “Animatzen dugu jendea gurekin etor dadin: atek zabalik daude”, azaldu dute.



JOSEBA BERAMENDI 'EXPRAI' / DIBUJANTE Y DISEÑADOR GRÁFICO

Me gusta probar cosas nuevas y no encorsetarme en un estilo”

Joseba Beramendi (Iruña, 1973) ha trabajado en diversos medios de comunicación, tanto en papel como en digital, así como en publicidad, televisión, cine y radio, principalmente en euskera. También desarrolla el humor gráfico en periódicos y revistas, junto con la ilustración de libros. Recientemente ha publicado su primera obra en solitario, el cuento ‘Zu hor eta ni hemen’, en el que escribe además de dibujar.

Ze Berri?.- ¿Cómo empezaste en el mundo del dibujo?

Joseba Beramendi.- Desde la primera vez que sostuve un lápiz, como todo el mundo. Y me dedico a esto porque no dejé de dibujar. La cuestión no es cuándo empezamos a dibujar, sino cuándo dejamos de hacerlo. En un aula de infantil todos dibujan; en bachiller, con suerte alguno. Yo he dibujado toda la vida y no he perdido ni la costumbre ni el músculo que se ejercita.

Z.B.- Has probado diferentes estilos y formatos, ¿con cuál te sientes más cómodo?

J.B.- No sabría decir. Yo dibujo para pasarlo bien, principalmente. Hago muchas cosas con diferentes estilos, porque es según lo que me pida el cuerpo. Cuando se trata de ilustrar textos ajenos y para según qué público, me parece que va mejor una cosa que otra. No es que domine ningún estilo al cien por cien, sino que hago lo que más apropiado me parezca en el momento. Se trata de aprender constantemente.

Z.B.- ¿Cómo ha sido el salto de publicar un libro enteramente tuyo?

J.B.- Ha sido toda una experiencia. Hasta ahora los únicos textos que he escrito han sido para las tiras de prensa, chistes y colaboraciones de otros medios. Pero escribir un relato, y para público infantil, ha sido una jugada. Tenía muy clara cuál iba a ser la historia, pero cuando me puse en el papel, la parte escrita se me quedaba muy rara, hasta ridícula. Entonces decidí ponerme un obstá-

culo más a mí mismo y hacerlo en bert-sos. Ya que el contenido no es muy sesudo o complejo, que por lo menos tenga otra gracia, que se pueda cantar.

Z.B.- ¿Por qué has elegido el tema de la guerra para un cuento infantil?

J.B.- Tenía el run-run y el escozor de lo que está pasando en Gaza. Me puse a trabajar el tema y en seguida me vino la idea de cómo lo quería hacer. No podía ser muy crudo, pero estas criaturas ven cosas y se encuentran con imágenes muy duras. Podía ser una buena oportunidad, pero no para explicar cosas; el libro no da ningún tipo de clave, sino que da pie para que en casa se hable sobre el tema. Está pensado como un álbum ilustrado, donde en teoría el texto y la imagen se tienen que complementar, para que sean uno y no se entiendan uno sin la otra. Yo me salté la teoría: el texto tiene un sentido y los dibujos otro. El texto

es un cuestionario que se le hace a la niña y al niño sobre su día a día para que pueda responder desde su realidad, pero viendo que esa realidad es diferente en otros sitios.

Z.B.- ¿Cuál es el aspecto que más te gusta de lo que haces?

J.B.- Que es cambiante todo el tiempo. Me da la oportunidad de hacer cosas diferentes; hay otros dibujantes que tienen un estilo muy definido, pero yo no busco que se me reconozca, lo hago para pasarlo bien. Cuando cambio de estilo y formato suele ser por encargos, para favorecer el trabajo. A la hora de vender, no vendo tanto una marca sino un servicio. Es más mercenario, pero me gusta probar cosas nuevas y no quiero encorsetarme en un estilo.



EUSKARAZKO MARRAZKILARITZA, BIZI-HAUTUA

“Euskarak toki nagusia du nire lanean. Euskal Herrian eta euskaraz lan egin dut; orain baditut kanpoko lanak ere, baina euskal komunikabideekin eta agentziekin egiten dut lan. Oso eroso sentitzen naiz euskaraz marrazten. Eta hautu bat ere badela sentitzen dut; hori alde batera utzi eta gazteleraz egindako lana indartu nezakeen eta nire gaurko

egoera bestelakoa izango litzateke, baina nire kasuan euskaraz lan egitea hautu kontziente bat da. Euskarazko ilustrazioa sormen eta proiektzio mailan zoragarri dago; ilustratzaile gazte eta potente asko daude. Baina maila ekonomiko eta profesionalen, oso gaizki dago mundu hau. Gauza ikaragarriak egiten dira eta goraka doa, baina ez da nahiko ordaintzen.”

EZAGUTZEN DUZU TOKI HAU? • ¿DE QUÉ LUGAR HABLAMOS?

LEHIAKETA / CONCURSO

En este número hacemos referencia a un valle de la Merindad de Estella formado por once concejos y cuatro lugares habitados y atravesado de norte a sur por el río Salado.

La respuesta al concurso del número 169 era:

ARTZIBAR-VALLE DE ARCE

El ganador es:

Oskar Barber (Etxauri)
ZORIONAK!



MIKEL BELASKO

Arce/Artzi

Ze Berri? no atiende a razones. Suplicar que el topónimo de la revista sea de fácil explicación no le vale al autor. No. Ze Berri? se debe a sus lectores y lectoras y por ello pone sobre la mesa los nombres de los valles donde esta revista es lectura querida y buscada.

Arce/Artzi es un buen ejemplo de lo dicho. Acostumbrados en castellano al uso de la forma Arce, parecería lógico suponer que en euskera se conociera como *Artze* 'pedregal', del euskara *har(ri)* y el sufijo *-tze*.

Sin embargo, su nombre antiguo fue desde un principio *Arçi* y así se mantuvo en euskera mientras se habló en el valle hasta bien entrado el siglo XX. Todavía en el año 1860, Juan Cruz Elizalde, maestro de Úriz, escribía: "*Arcico Vallea compocen da ogeui eta vorz erri eta caserioquin...*". Arce es, pues, una versión moderna que comenzó a usarse por escrito, y luego se extendió al castellano oral.

Ya que cada topónimo tiene una vertiente geográfica -topos- y otra lingüística -onoma-, nuestra labor consistirá en aclarar ambos aspectos. Por lo que toca a la geografía hay que dilucidar si Artzi fue originalmente el nombre del valle o si lo tomó, como parece más lógico, de la localidad homónima del valle, tal y como ocurre en Erro, Roncal, Egüés, Aranguren... El Diccionario de la Academia de Historia de 1802 describe así nuestra localidad de Artzi, ubicada "en una llanura hermosa, terreno fértil y abundante... una huerta deliciosa..." Esto es, se aleja



de la visión que podríamos tener de un estéril pedregal.

En cuanto a su forma, y sin salir del valle, encontramos el nombre de dos localidades que, sin darnos una solución definitiva, sí nos dan una pista: Olozi y Urdazi. Esto es, tendríamos pues hasta tres localidades, las tres muy pequeñas, con un primer componente explicable desde el euskera: *olo* 'avena', *urde* 'cerdo'... y un sufijo *-zi* que, lamentablemente, no parece usarse fuera del valle. No obstante, si despojamos a Artzi de *-zi*, se nos presentan tres imágenes ante la vista: un enorme *oso* 'hartz', una asustadiza *art-* (*ardi*) 'oveja', y una omnipresente *har(rri)* 'piedra': Osera, redil o pedregal. Esperemos que nuevas investigaciones y el vecindario del valle aclaren mejor este aspecto.

Ezagutzen duzu toki hau? • ¿De qué lugar hablamos?

Moztu kupoi hau, bete eta postaz bidali edo zeberri.eus web gunean dagoen galdetegia bete eta bidali apirilaren 1a baino lehen. Recorta este cupón y envíalo por correo o rellena el formulario de la página web www.zeberri.eus antes del día 1 de abril.

Concurso ¿De qué lugar hablamos?

Concejo de Ustárriz, 9-11 (trasera) 31016 • Pamplona / Iruña

Erantzuna / Respuesta:

Izen-abizenak • Nombre y apellidos

Herria • Población

Telefona • Teléfono

Saria: Bi pertsonentzako asteburuko egonaldia • El premio es un fin de semana para dos personas en el Hostal Itzalgikoborda.



Elizondoko plazatik 2 kilometrora gaude, zuhaitzez eta erreka batez inguratuak, uraren gurguria ere entzun daitekeen toki paregabea. Hauxe da Itzalgikoborda, hostel bat asteburu lasaiaz gozatzeko edota otordu bat egin eta gero patxada ederrean mahaiaren inguruan egoteko.

A dos kilómetros de Elizondo, rodeados de árboles y de una regata desde la que nos llega el murmullo del agua. Itzalgikoborda, un hostel donde disfrutar de un tranquilo fin de semana o de una comida con una agradable sobremesa.

Itzalgikoborda

B^o Berri.
31700 Elizondo/Navarra-Nafarroa

948581483
630154519

www.itzalgikoborda.com

El responsable del tratamiento de sus datos es HEDA Comunicación S.L., que tratará los datos incluidos en este cupón con la finalidad de realizar el sorteo. Usted tiene derecho al acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación del tratamiento de los datos y a presentar una reclamación ante la autoridad de control. Más información en www.aepd.es/reglamento/derechos/index.html

BIDEZ BIDE • POR EL CAMINO DEL EUSKARA

LABURRAK • BREVES

13

ENRIQUE DIEZ DE ULZURRUN SAGALÀ

El éxito de la Doctrina en euskera del abad de Uterga

Es de sobra conocido que Juan Beriain, el escritor vasco de Uterga y abad de dicha localidad de Valdizarbe, publicó dos obras en euskera y castellano hace unos 400 años en la famosa imprenta de Carlos Labayen situada en la calle Cuchillería de Pamplona, actual calle San Francisco, al lado de San Lorenzo. Lo que se desconocía eran datos en torno a la difusión de una de dichas obras en la Zona Media de Navarra, datos que estos últimos años han salido a la luz a través de testimonios publicados por el artajonés Fernando Maiora y por el vecino de Puente la Reina / Gares Fernando Pérez de Laborda. La obra en cuestión es una Doctrina Cristiana (Dotrina Kristioarena uskaraz) que vio la luz el año 1626, en una época en la que más del 80% de la población de Navarra hablaba euskera y que era la única lengua de casi toda la gente nacida en Uterga, el resto de Valdizarbe y valles adyacentes. Por tal motivo, el episcopado de Pamplona ordenó a los párrocos que adquirieran ejemplares del libro para enseñar la Doctrina en euskera a las y los feligreses.



La orden para los respectivos párrocos es parecida en los documentos encontrados en los libros parroquiales. La que sigue es la que recibió el párroco de Bezikitz en la Valdorba el año 1628: “...mandamos que todos los domingos y fiestas de guardar declare el santo evangelio y enseñe la doctrina cristiana en lengua vascongada y para ello compre un libro que sobre la materia ha compuesto el licenciado Beriain, abad de Uterga”. Del mismo año son las órdenes que se dieron a los párrocos de Etxague y Unzue en la Valdorba, así como al de Biurrun. Y del año 1632 el mandato dado al de Muruarte de Reta o, mejor dicho, Muru Arterderreta, con la particularidad que a este último añadieron una frase, para instar al sacerdote a comprar dicho libro, “so pena de un ducado”, es decir, que si no cumplía la orden, le pondrían una sanción. El cura, por supuesto, se apresuró a cumplirla.

Sin mencionar al abad de Uterga, el episcopado emitió cientos de órdenes en aquel siglo y posteriores dirigidas a los párrocos para que enseñaran la doctrina en la “lengua natural” de la gente, es decir, en euskera. En el caso de Biurrun, por ejemplo, en el archivo parroquial se conservan los mandatos desde 1628 hasta 1763, tal y como Víctor Pastor el párroco de la localidad hacia 1990 los publicó en una hoja informativa.

En definitiva, son muy numerosos los testimonios que dan cuenta de la vitalidad de la lengua vasca en Navarra, incluida su capital. En Pamplona, por ejemplo, de media, más de ocho de cada diez personas se confesaban en euskera hacia 1650, según los datos aportados por las parroquias.

Spoiler, ajoarrieroa, gurasokeria, ziborg, reggaeton eta guakamole, Euskaltzaindiaren Hiztegiko azken eguneratzeen artean. 2024ko bigarren seiñalekoaren lanaren emaitzak jaso ditu Euskaltzaindiak. 795 forma berri jaso ditu Euskaltzaindiak hiztegian. 513 sarrera, 199 azpisarrera eta 83 ohiko lexia. Forma berrietan, oraingoan, batez ere, sukaldaritzako hiztegia landu dute. EITB eta Berria-ko edukiak hartu dituzte iturritzat.

Publicado el libro “Ager Vasconum Literatura lehiaketa 2014-2024”. Recientemente tuvo lugar en Tafalla la presentación del libro “Ager Vasconum Literatura lehiaketa 2014-2024”, editado por Altaffaylla y cofinanciado por Euskarabidea y que recoge los trabajos ganadores y varias fotografías del concurso literario ‘Ager Vasconum’ que se celebra en varias localidades de la zona media de Navarra. El concurso, que está dirigido a jóvenes de 12 a 30 años estudiantes de modelo D, inició su andadura en 2014. En 2017 se sumaron las localidades de Olite, Sangüesa, Estella y Lodosa, mientras que un año más tarde se incorporó la Mancomunidad de Irantzu y en esta última edición lo hicieron Viana y Zizur Mayor.

Nafarroako Gobernuak aurrera egingen du Foru Administrazioan hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak egituratzeko euskara planekin. Urtarrilaren 15ean burutu zen Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean Nafarroako Gobernuak azaldu zuen aurrera egingen duela Foru Administrazioan hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak egituratzeko euskara planekin, nahiz eta arrazoi desberdinak direla medio, gehiengo sindikala kontra agertu zen. Gobernuak ordezkariak azaldu zuten departamentu guztiek, lehen aldiz, hizkuntza-eskakizun elebiduna duten plaza izatea da helburua, herritarrei behar bezalako arreta emateko asmoz.

Euskara plan hauek 246 lanposturi egokitu die euskarazko CI maila, orain dauden plazekin alderatuta % 50 gehiago. Lanpostu horiek pixkanaka ezarriko dira, langileen lan-eskubideak, merezimendu-berdintasuna eta sarbide-berdintasuna bermatuz. Prozesuaren amaieran 757 plaza egongo dira euskara eskakizunarekin, guztien % 4,7.

La mano de Irulegi y el hombre de Loizu reciben miles de vistas en el Museo de Navarra. Desde su inauguración el pasado 17 de diciembre en la renovada Sala de Prehistoria del Museo de Navarra, la afluencia de visitantes a la exposición de los hallazgos arqueológicos de la mano de Irulegi y el hombre de Loizu, un esqueleto de más de 11.700 años de antigüedad, se ha incrementado notablemente.

Del 17 al 31 de diciembre, un total de 2.918 personas se acercaron al Museo de Navarra, 1.751 visitantes más que en el mes de diciembre de 2023. Y entre los días 2 y 12 del pasado mes de enero se han registrado 2.459 visitas (en el mismo periodo de 2024 fueron 1.136). Otro dato destacado es el incremento importante de la afluencia de gente de entre 20 y 30 años.

Los viernes por la tarde y los sábados y domingos mañana y tarde se ofrecen visitas guiadas a las 11:00, 12:00, 13:00, 17:30 y 18:30 horas, con explicaciones sobre estos hallazgos tanto en euskera como en castellano.

2022ko abenduan, 13.000 bertsozale elkartu ziren Iruñeko Nafarroa Arenan Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala ikusteko. 13.000 esku pare horien artean, euskaldun zahar, berri, ahobizi eta belarriprest asko zeuden, nahasian. Euskara mailak ez zuen hitzordu garrantzitsu honetaz gozatzeko aukera

baldintzatu. Bertsolaritzarekiko zaletasuna sustatzeko asmoz AEK-k euskara ikasleentzako “Bertso Eguna” antolatzen du urtero, alde batetik eta, bestetik, Bertsozale Elkarateak “Bertsolaritza irakaskuntzan” programa 29.000 haurrengana eramaten du Nafarroa osoan.

YASMINE KHRIS MAANSRI

Sinestarazi ohi digute bertsolaritzaz gozatzekak hizkuntza menperatu beharra eskatzen duela. Bertsoa ulertzeko euskara jatorraren ezagutza izan behar duzu edo maila altua, bederen. Iritzi prefabrikatu horien kontra “Bertso Eguna” antolatzen du urtero AEK-k bertsoa ikasleendako eskuragarri egiteko asmoz. Arantza Goienaga irakasleak A2 maila ematen du eta goizero aritzen da Iruñezar euskaltegian. Pasa den abenduan antolaturiko goiz eta arratsaldeko saioetan Xabat Ilarregi, Ekhiñe Zapiain, Kattin Madariaga eta Bittori Elizalde bertsolariak aritu ziren. “Aspalditik dator kontua” dio Goienagak, “bertsolaritza gure ikasleei hurbiltzeko asmoz hasi ginen”. Irakasleek badakite diziplinak ez duela zertan gustatu mundu guztiari, eta seguruenik hainbat kezka sortzen zaiela ikasleei: “Zertarako joan? Ez dut piperrik ulertuko!” saiatzen da irudikatzen ikasleen urduritasuna Goienaga. Aritz Remiro Goienagaren ikasle ohia da, eta arratsaldeko saioan egon zen. “Nire ustez, bertsolaritza... –“buf” ateratzen zaio– konplexua da, edo gutxienez ongi egitea. Euskaldun berrioi batzuetan oso zaila egiten zaigu”. Jarduera, halere, gustuko du eta ahaleginduz gero, gozatzen du: “Hemengo jarduera bat da, Euskal Herrikoa. Nire kasuan, pare bat aldiz bertso bera entzun behar dut ongi ulertzeko eta batez ere dena ulertzeko. Ez da bakarrik bertsoa, baizik eta bere mezua. Hitz gutxirekin gauza handi eta sakonak esan ditzakezu”. Bertsolaritza ez da soilik AEKn zabaltzen. Euskal Herriko hainbat eskolatan ere lan polita egiten da. Bertsozale Elkarateak “Bertsolaritza irakaskuntzan” proiektua 1985ean sortu zuen Nafarroan, ikastetxeek eskatuta, haurrei eskolan bertsolaritza ezagutarazteko eta zaletzeko. Egun, 29.000 ikasleek ikasten dute bertsolaritza eskola orduetan, 50 irakaslerekin. Bittori Elizalde bertsolaria honetan aritzen da. Afizioa aitaren aldeko familiarik (Zubietakoa) datorkio, eta etxean bertsoa oso presente egon da beti: “Bosgarren mailako haur talde batekin ari naiz orain. Oso harrera polita izaten ari da ekimena ikasleen artean”. Eta honi gehitzen dio “lehenago hala uste banuen ere, orain are argiago ikusten dut bertsolaritzak

BERTSOA, euskararako sarbidea



euskara sustatu, ikasi, piztu eta indartzen lagun dezakeela. Benetan baliabide interesgarria da”. Bera ere aritu zen “Bertso Egunean”, A1 eta C1 mailen arteko ikasleen aurrean. “Akaso batzuek den-dena ez zuten ulertu, baina uste dut denek gustura hartu zutela”, dio pozik. Sentsazio berdina izan zuten Goienagaren ikasleek, behin bukatuta: “Arrakastatsua izan zen. Are gehiago: entzun ondoren, batzuk liluraturik geratu ziren!”. Arreta mantentzeko eta saioa atseginagoa egiteko, aurreko lanke-

ta egiten da euskaltegian, bertsolaritza zer den azalduz eta hainbat jolas eta gaiak landuz. “Jakin behar da zertara zoazen, baina ikasteko eta jolasteko tresna izaten da zantalzarik gabe”. Elizaldeak baieztatu du: “Hitzen arteko korapiloak sortzea eta errimatzea eta horiekin jolastea da bertsotan aritzea, azken finean. Bertsolaritzak euskararenganako hurbiltasun bat suposatzen du, modu erakargarri batean”. Erakargarria, aise: “Hurrengora joateko gogoz! Dudarik gabe”, dio Aritz Remirok, EGA azterketa prestatu bitartean.

PLAZARA ATERA BERRIA • NOVEDADES DE LIBROS Y DISCOS


15

LIBURUAK / LIBROS
Amazurtza
 Joxan Oiz Arruti
Txalaparta

Donostia, 1876ko ilbeltz elurtua. Karlsten bonbapean dago hiria, periodikoak egunero argitaratzen du zenbat pepino erori diren bezperan. Gerra amaitzen ari den ustean, hiria berriro pizteko prestatzen ari dira, kaleak zabaltzen, bazterrak argitzen. Eta hiriaren garapen horri loturik, hainbat poltsiko betetzen.

Zenbaitek, ordea, granaden burrunba eta iskanbila etsaiak garbitzeko probestuko du. Kapela saltzaile bat egia bilatzen saiatuko da, ezagun baita mikelleteak, milizianoak eta karlistak, denek janzen dutela inoiz txapela.

Euskal Herrian literatura beltza sustatzeko VII. (H)ilbeltza bekaren irabazlea


ZAPALDUON PEDAGOGIA
 edo nola libre hazi, hezi, bizi

Ane Ablanedo Larrion.
 Hitzaura: Eneko Bidegain
H-errima

Alfabetizazioaren eginkizun gorenaren errealitatea irakurtzen erakustea

baldin bada, zer da herri menderatuan euskal irakaslea izatea, euskaraz egitetik areago?

Irakurle, izan bekizula liburu hau lozorrotik esnarazten duen ezkila, kartolak gainetik kentzen ikasteko tratadua, askatasun osoaren kimera irudikatzen laguntzen duen ahots zirikatzailea, edo herri-nortasunaren suspertzaile, hainbat irakurlearen hitzak baliatuz.


Rifqa
 Mohammed El-Kurd.
 Itzulpena: Eider Beobide
 Urkizar

Katakarak

Olerki bilduma. Eskola egun bakoitzaren ostean, Mohammed El-Kurden amonak jazmin-sorta batekin ematen zion ongietorria. Haren izena Rifqa zen, Israel bera baino


zaharragoa zen eta Palestinar erresilientziaren ikono bat zen. Izaera zorrotzarekin eta argitasun moral distiratsurekin, El-Kurdek israeldar kolonialismoaren basakeria agerian uzten du. El-Kurden poemek Rifqaren erbestealdiak azaltzen ditu, Haifatik berriki desjabetutako Sheikh Jarrahra, Jerusalemen, Nakbaren izu zikliko eta gupidagabea agerian utziz. El-Kurden estreinak bildumak nabarmen erakusten du palestinarren borroka iraultza bat dela, garaipenera arte eramango dutena.

MIGEL ANJEL ASIAIN “OSIO”

Profesor jubilado y miembro de la Asociación Galtzagorri de Literatura Infantil y Juvenil

Non sense liburua

La editorial navarra Denonartean ha tenido el gusto y el atrevimiento de publicar el clásico de la literatura infantil ‘Non sense liburua’, de Edward Lear. Aunque el original en inglés se publicó por primera vez en 1846 (hace ya casi 200 años) el libro no ha perdido un ápice de interés desde su primera edición. Con este libro el escritor inglés inaugura un tipo de poesía: los *limerick*. Como explica la Wikipedia, “el *limerick* es una forma poética formada por cinco versos, con un esquema de rima estricto: AABBA. Los dos primeros versos riman con el último y el tercero con el cuarto, que por lo general son



más cortos”, es decir, que es un tipo de poesía de carácter humorístico que tiene unas formas muy concretas. Esto hace que la traducción a cualquier idioma sea complicada y para lograrlo, además de conocer bien los dos idiomas, hace falta ser una o un gran poeta. Este es el caso de Juan Kruz Igerabide, que ha conseguido salir del trance más que airoso y que, además de haber traducido los poemas, ha realizado una excelente introducción. Los poemas de Edward Lear parece que han sido creados en euskera.

Los *limericks*, al jugar con el absurdo y la métrica, se pueden utilizar para cualquier edad desde los 6 años, siendo un recurso para la escuela, para madres y padres y, cómo no, para gozar de estas pequeñas píldoras de poesía juguetona.

Para muestra bien vale un botón: *Behin omen zen jaun zahar bat/ Egin omen zuen puzker bat/ Joan omen zen baratzeria/ jan omen zuen aza/ Egin omen zuen kaka berde-berdea.*

Un buen libro para todas las edades, a partir de los 6 años, e imprescindible en todas las escuelas y bibliotecas...

DISKOAK / DISCOS
‘Zerrautsa’
 Olaia Inziarte

Olaia Inziarte abeslari baztandarrak bere bigarren diskoa aurkeztu du. Lan honek pertsonaetik harago doan elkarriketa sakona eraikitzen du. Musika munduaren bueltan sortzen diren dinamikekiko eta mundua begiratzen duen bitartean, etsipenez kantatzen duen gogoeta kritikoa da. Hauskortasunaren, eraldaketaren eta barne-bakearen

bilaketaren inguruko gogoeta da. Maisuki landutako disko honetan, soinu organiko eta elektronikoak uztartzen dira, emozio-espektrora zabal eta bizia duten paisaia musikalak eraikiz. Natxo De Felipe euskal musika tradizionalako ardatza denaren kolaborazio bereziak diskoari sakontasun historiko eta kulturala ematen dio.


‘Lore’
 Janus Lester

Hau artista beratarren bigarren diskoa da. Musikariaren hitzetan, sarritan zaila da asmatzea lore batek falta duena zer den. Ura edo argia. Edozer ez da loratzen eta edonor ere ez. Aldiz, espero ez ditugun arrakala edo txokoak loratzen dira ustekabeen.

Garrantzitsuena aurrera jarraitzeko gogoak izatea da. Kolore gorri bereizgarri batekin jantzitako diskoa da hau “mina eta pasioa” dituen kolorea delakoan. Izaro eta Neomak taldearen kolaborazioak izan ditu Janus Lesterrek lan honetan.

ASTINDU! TOPAKETAK

Ameslariendako ikastaroa

Zer?

Euskararen biziberritzean dabilzan eragile euskaldunak ekarpen teorikoz sendotzeko ikastaroa

Nola?

Hitzaldi sakon baina pizgarriak, gai teorikoetan patxadaz janzteko eta bakoitzaren beharrei norabidea aurkitzen laguntzeko, galdera-erantzun tarte zabalekin

Azpirarra teknikoak, soziolinguistikatik, adituen hitzaldietan zein parte-hartzaileen korapiloetan oinarrituta, modu parte-hartzailean diskurtso eraginkorrak eraikitzeko

Noiz eta non?

Martxoaren 22an, 29an, apirilaren 5ean eta 12an 9:00etatik 13:00etara
Eusko Kultur Fundazioan (Iruñean)

Saioak

1. Nondik gatoz?

Txepetx, Fishman: iraultza soziolinguistikotatik, gaur egungo komunitate estrategia eta jauzi politikoetara

Jon Sarasua (HUHEZI, Euskaltzaindia)

[soziolinguistika oinarriak berrikusi: hizkuntza komunitatea, hizkuntza minoritarioa vs minorizatua, hizkuntza funtzioak, diglosia, arnasguneak]

3. Nola gaude? (II)

Dantza eta euskararen zirikorda: burujabetasuna eta ahalduntzea

Aritz Ibañez (Duguna)

[auto-eraketa eta auto-finantzaketa, hizkuntza komunitatearen mundu ikuskera, tradizioa vs herri kultura, belaunaldi berriak eta transgresioa]

2. Nola gaude? (I)

Hizkuntza transmisioetik sozializazioa: paradigma eta arau soziolinguistiko berrien bila

Jone Miren Hernandez (EHU)

[hizkuntza-sozializazioan trebatu: publiko segmentazioen dinamikak, segmentu bakoitzaren aktibazio eta behar posibleak]

4. Nora goaz?

Astintzen gaituzten ametsak: euskaldunon komunitatearen etorkizuneko kontakizunak eta ekintzak

Rosa Ramos (Uharri)

[euskararen biziberritzearen kontakizuna eguneratu etorkizun ikuspegitik, eta komunikazio disimetrikoan trebatuta]

Izena eman hemen:



Otsailaren 20a baino lehen (plaza mugatuak)
Informazio gehiago nahi baduzu, idatziguzu: bulegoa@karrikiri.eus

Antolatzaileak



Babesleak

